**BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, EUSKADIKO 2022. URTEKO NEKAZARITZA, ABELTZAINTZA ETA ARRANTZA AZOKEN GIDAREN DISEINUA, LANKETA ETA BIDALKETA KONTRATATZEKO (27. EDIZIOA)**

## 1.- SARRERA

Euskadiko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantza Azoken Gida klasiko bihurtu da, eta orain dela 26 urte baino gehiago argitaratzen du Eusko Jaurlaritzak, HAZIrekin lankidetzan, Euskadiko herrietan egiten diren Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantza Azoka guztiei buruzko informazio zehatza emateko.

Informazio baliagarri horrek aukera ematen die gure herritarrei lehen eskutik herri ekitaldi horien data, leku eta ezaugarri nagusiak jakiteko.

Informazioa batez ere gida inprimatu erabilerraz batean eskaintzen da (2020an izan ezik, digitala baino ez baitzen atera), eta, gainera, Internet bidez ere kontsulta daiteke, bilatzailearen bidez edo helbide hauetan aurki daitekeen pdf-aren bidez: https://www.euskadi.eus/ferias/ eta https://www.euskadi.eus/azokak/.

HAZI Fundazioa izango da **2022. urteko 27 zenbakidun gidaren lizitazio prozesua eta sorkuntza kudeatzeko** erakundea.

## 2. PLANTEAMENDUA

Helburua da ekitaldi guztien eskuliburu bat diseinatu eta egitea, Hazi Fundazioak emandako informaziotik abiatuta. Halaber, gutun azalak eta gutunak ere prestatu beharko dira, ondoren bidaltzeko. Lizitazioa esleitu ondoren, eta lanketaren unean, HAZIk gutunerako logotipoak eta testua igorriko dizkio enpresa esleipendunari.

**1. Lotea**

- LIBURUXKAREN DISEINUA
- SARRERA IDAZTEA
- TESTUEN EUSKARAZKO ITZULPENA ETA EGOKITZAPENA
- MAKETAZIOA
- AURKEZPENAREN GUTUN AZALA ETA GUTUNA
- LAN GUZTIA KOORDINATZEA MATERIAL GUZTIA ENTREGATU ARTE, ETA SORTZEN DIREN GORABEHERA GUZTIAK KONPONTZEA, INPRIMAKETA ETA BANAKETA LANAK BARNE.
- GIDAREN PDF-AK ENTREGATZEA.
- EXCEL EGUNERATUAK ENTREGATZEA:
    - Excela, programatutako azoken lurraldearen arabera.
    - Azoka Giden banaketaren excela.

**2. Lotea**

- INPRIMAKETA
    - ALEAK MANIPULATZEA, BANATZEA ETA GORABEHERAK KONPONTZEA:

- Euskadiko 413 helmugatara gutxi gorabehera (udalak eta zentro ofizialak), dagokion gutunarekin.
  Hazik behin betiko datu basea emango dio enpresa esleipendunari, entregatu beharreko kopuru eta helbideekin.
- Datu baseak 2019aren amaieran eguneratu dira, baina daitekeena da ondoren aldaketaren bat gertatu izana, esaterako, helbide aldaketak, etab.; arrazoi horren edo beste batzuen ondoriozko gorabeherak enpresa esleipendunak kudeatu beharko ditu 2020ko urtarrilaren amaieraren aurretik.

Entregen gutxi gorabeherako koadro hau ematen da (behin-behinekoa da):

| Bidalketa bakoitzeko liburuxka kopurua | Hartzaileak | Bidalitako liburuxkak guztira |
|---|---|---|
| 5 | 3 | 15 |
| 25 | 116 | 2.900 |
| 50 | 123 | 6.150 |
| 75 | 29 | 2.175 |
| 100 | 17 | 1.700 |
| 150 | 121 | 18.150 |
| 200 | 6 | 1.200 |
| 250 | 1 | 250 |
| 300 | 2 | 600 |
| 400 | 3 | 1200 |
| 500 | 7 | 3.500 |
| 560 | 1 | 560 |
| 800 | 2 | 1.600 |
| **GUZTIRA** | **431** | **40.000** |

Proposamenak baloratzeko lehen orrialdearen eta barruko hiru orrialderen lagin bat egin behar da koloretan, orrialde estandar bana lurralde historiko bakoitzeko. Komeni da lagin horiek pdf formatuan aurkeztea.

**- Ale kopurua:** 40.000 unitate. Edizioa behar bezain garaiz egingo da, 2021eko azken astean materiala helmugan entregatuta egon dadin.

**- Formatua:**
"POLTSIKOKOA" – NEURRIA 10 X 21 CM
ORRIALDE KOPURUA GGB. 88. Eskuarki, liburuxka grapatuta joan ohi da, baina josteko beste sistema bat erabil daiteke.
COUCHÉ PAPER DISTIRATSUA, 115 GR. Azalak ere gramaje bera izan dezake.
HALERE, BESTE FORMATU BATZUETAN ERE ONARTUKO DIRA PROPOSAMENAK

**- Oharrak:**
Bezeroak, hau da, Hazik, Datu Base bat emango du, "mercados locales 2021" gaztelaniazko testuarekin eta 2021eko azken edizioari dagokion euskarazko testuarekin, azken hori euskarazko itzulpena errazte aldera, testu asko berdinak izango baitira, eta soilik ekitaldiaren data eguneratu beharko baita.

Argazkiak ere emango ditu, baita bidaltzeko helbideak ere euskarri elektronikoan.

Lana egin ondoren, Hazik pdf formatuan jasoko du liburuxka eta informazio elebiduna duen datu basea, 2022ko edizioari dagokiona. Ilustrazio bat ere entregatuko da, formatu digitalean, sare sozialetan zabalkundea egiteko (formatua abenduan zehaztuko da).

Hurrengo esteketan 2020ko gidaren dokumentua aurki daiteke, pdf formatuan eta bilatzaile formatuan: https://www.euskadi.eus/ferias/ eta https://www.euskadi.eus/azokak/ eta http://www.euskadiferiak.com/

**- Lan timinga:**

Lana zehaztutako denboran egin ahal izateko, Hazik timing hau proposatzen du:

**1. Lotea:**

- Lizitazioa esleitu eta gero, gutxi gorabehera urriaren 1ean, enpresa esleipenduna lehen maketazioa prestatzen hasiko da, aurreko urteko datuetan oinarrituta.

- Behin betiko datuak Lurralde Historikoen arabera entregatuko dira, modu honetara:

  - Arabako Lurraldeko behin betiko datuak: urriaren 22an entregatuko dira; astebete eta erdi egongo da datuak eguneratzeko eta gaztelaniaz eta euskaraz zuzentzeko.

  - Gipuzkoako Lurraldeko behin betiko datuak: urriaren 29an entregatuko dira; astebete baino zerbait gehiago egongo da datuak eguneratzeko eta gaztelaniaz eta euskaraz zuzentzeko.
  - Bizkaiko Lurraldeko behin betiko datuak: azaroaren 11n entregatuko dira eta 4 egun egongo dira datuak eguneratzeko eta gaztelaniaz eta euskaraz zuzentzeko.

- Azaroaren 15etik 22ra amaierako laginak zuzenduko dira.
- Abenduaren 10ean, liburuxka Haziri entregatzea PDF formatuan.
- Abenduaren amaieran, CDa emango zaio Hazi Fundazioari, amaierako laginekin eta datu baseekin lurralde historikoen arabera, gaztelaniaz eta euskaraz.
-

**1. eta 2. loteak (koordinazioari dagokionez):**

- Azaroaren 22tik abenduaren 10era, inprimatzea.
- Abenduaren 11n, banatzaileari entregatzea.
- Abenduaren 13tik 17ra, sailkatzea eta bidaltzeko prestatzea.
- 2021eko abenduaren 20tik 31ra, bidalketa guztiak eginda egongo dira.
- Urtarrilaren amaieraren aurretik agentziak behar bezala bideratuta izango ditu entregako gorabehera guztiak.